

Declaración de las Naciones Unidas sobre los derechos de los pueblos indígenas

La Asamblea General,

Guiada por los propósitos y principios de la Carta de las Naciones Unidas y la buena fe en el cumplimiento de las obligaciones contraídas por los Estados de conformidad con la Carta ,

Afirmando que los pueblos indígenas son iguales a todos los demás pueblos y reconociendo al mismo tiempo el derecho de todos los pueblos a ser diferentes, a considerarse a sí mismos diferentes y a ser respetados como tales,

Afirmando también que todos los pueblos contribuyen a la diversidad y riqueza de las civilizaciones y culturas, que constituyen el patrimonio común de la humanidad,

Afirmando además que todas las doctrinas, políticas y prácticas basadas en la superioridad de determinados pueblos o personas o que la propugnan aduciendo razones de origen nacional o diferencias raciales, religiosas, étnicas o culturales son racistas, científicamente falsas, jurídicamente inválidas, moralmente condenables y socialmente injustas,

Reafirmando que, en el ejercicio de sus derechos, los pueblos indígenas deben estar libres de toda forma de discriminación,

Preocupada por el hecho de que los pueblos indígenas hayan sufrido injusticias históricas como resultado, entre otras cosas, de la colonización y enajenación de sus tierras, territorios y recursos, lo que les ha impedido ejercer, en particular, su derecho al desarrollo de conformidad con sus propias necesidades e intereses,

Consciente de la urgente necesidad de respetar y promover los derechos intrínsecos de los pueblos indígenas, que derivan de sus estructuras políticas, económicas y sociales y de sus culturas, de sus tradiciones espirituales, de su historia y

Herri indigenen eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena

Biltzar Orokorak,

Jarraiturik Nazio Batuen Gutunaren asmo eta printzipioak eta estatuak hartutako betebeharrak Gutunaren arabera beteko dituztelako uste ona,

Baieztatuz herri indigenak beste herri guztiak bezalakoak direla eta aitortuz, era berean, herriek duten eskubidea desberdinak izateko, euren buruak desberdinak ikusteko eta desberdintasun horretan errespetatuak izateko,

Baieztatuz, halaber, herri guztiak direla ekarle zibilizazio eta kulturen aniztasunari eta aberastasunari begira, eta horiek osatzen dutela gizateriaren ondare erkidea,

Baieztatuz, gainera, doktrina, politika eta eginera guztiak, halakoak herri edo norbanako zehatz batzuen nagusitasunean oinarritzen direnean edo nagusitasun hori sustatzen dutenean, horretarako arraza-, erlijio- etnia- edo kultura-desberdintasunen inguruko arrazoiak emanaz, arrazistak direla, zientziaren arabera faltsuak, legearen arabera baliogabeak, moralaren arabera gaitzesgarriak eta gizarteari begira bidegabekoak,

Berretsiz herri indigenak bereizkeria modu guztietatik aske egon behar direla, euren eskubideak egikaritzen dituztenean,

Kezkaturik herri indigenek historian injustiziak jaso dituztelako, besteak beste, kolonizazioak eraginda eta, berebat, lurrak, lurraldeak eta baliabideak kendu dizkietelako, horrek eragotzi diela, batik bat, garapenerako eskubidea euren beharrian eta interesen arabera egikaritzea,

Aitortuz premiazko beharrian herri indigenek berez dituzten eskubideak errespetatu eta sustatzeko, eskubide horiek sortzen direla euren politika-, ekonomia-, gizarte- eta kultura-egituretatik, tradizio espiritualetatik, historia eta

de su concepción de la vida, especialmente los derechos a sus tierras, territorios y recursos,

Consciente también de la urgente necesidad de respetar y promover los derechos de los pueblos indígenas afirmados en tratados, acuerdos y otros arreglos constructivos con los Estados,

Celebrando que los pueblos indígenas se estén organizando para promover su desarrollo político, económico, social y cultural y para poner fin a todas las formas de discriminación y opresión dondequiera que ocurran,

Convencida de que el control por los pueblos indígenas de los acontecimientos que los afectan a ellos y a sus tierras, territorios y recursos les permitirá mantener y reforzar sus instituciones, culturas y tradiciones y promover su desarrollo de acuerdo con sus aspiraciones y necesidades,

Considerando que el respeto de los conocimientos, las culturas y las prácticas tradicionales indígenas contribuye al desarrollo sostenible y equitativo y a la ordenación adecuada del medio ambiente,

Destacando la contribución de la desmilitarización de las tierras y territorios de los pueblos indígenas a la paz, el progreso y el desarrollo económicos y sociales, la comprensión y las relaciones de amistad entre las naciones y los pueblos del mundo,

Reconociendo en particular el derecho de las familias y comunidades indígenas a seguir compartiendo la responsabilidad por la crianza, la formación, la educación y el bienestar de sus hijos, en observancia de los derechos del niño,

Considerando que los derechos afirmados en los tratados, acuerdos y otros arreglos constructivos entre los Estados y los pueblos indígenas son, en algunas situaciones, asuntos de preocupación, interés y responsabilidad internacional, y tienen carácter internacional,

Considerando también que los tratados,

filosofiatik, batez ere, lurrak, lurraldeak eta baliabideak izateko eskubidea.

Aitortuz,halaber, premiazko beharrizana herri indigenen giza eskubideak errespetatu eta sustatzeko, horiek baieztatuak izan baitira estatuekin egindako tratatu, akordio eta beste konponketa aberasgarrietan,

Goraturaz herri indigenak antolatzen ari direla politika-, ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapena sustatzeko eta bereizkeria- eta zapalkuntza-forma guztiei amaiera emateko, horiek nonahi gertatzen direla,

Sinetsita herri indigenek euren buruak, lurrak eta lurraldeak ukitzen dituzten gertaerak kontrolatzen badituzte, orduan euren erakundeak, kulturak eta tradizioak indartu ahal izango dituztela eta, oro har, garapena sustatu, euren asmo eta beharrizanen arabera,

Aitortuz indigenen ezaguerak, kulturak eta tradiziozko eginerak errespetatzea lagungarri dela garapen iraunkor eta ekitatearen araberakoarentzat eta ingurumenaren antolamendu egokiarentzat,

Azpimarratuz herri indigenen lurrak eta lurraldeak desmilitarizatzea lagungarri dela besteak beste, bakea, aurrerapen eta garapen ekonomiko eta sozialarentzat eta munduko nazio eta herrien adiskidetasun-harremanentzat,

Aitortuz batez ere, familia eta erkidego indigenek duten eskubidea seme-alaben hazkuntza, heziketa, hezkuntza eta ongizatearen erantzukizuna partekatzeko, haurraren eskubideekin bat etorritz,

Aintzat hartuta estatuen eta herri indigenen arteko tratatu, akordio eta bestelako konponketa aberasgarrietan baieztatutako eskubideak badirela, egoera zehatz batzuetan, kezka, interesa eta erantzukizuna sortzeko modukoak, batez ere, nazioarteko mailan ,

Aintzat hartuta, halaber, tratatu, akordio eta

acuerdos y demás arreglos constructivos, y las relaciones que éstos representan, sirven de base para el fortalecimiento de la asociación entre los pueblos indígenas y los Estados,

Reconociendo que la Carta de las Naciones Unidas, el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales (1) y el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos (1), así como la Declaración y el Programa de Acción de Viena (2) afirman la importancia fundamental del derecho de todos los pueblos a la libre determinación, en virtud del cual éstos determinan libremente su condición política y persiguen libremente su desarrollo económico, social y cultural,

Teniendo presente que nada de lo contenido en la presente Declaración podrá utilizarse para negar a ningún pueblo su derecho a la libre determinación, ejercido de conformidad con el derecho internacional,

Convencida de que el reconocimiento de los derechos de los pueblos indígenas en la presente Declaración fomentará relaciones armoniosas y de cooperación entre los Estados y los pueblos indígenas, basadas en los principios de la justicia, la democracia, el respeto de los derechos humanos, la no discriminación y la buena fe,

Alentando a los Estados a que cumplan y apliquen eficazmente todas sus obligaciones para con los pueblos indígenas dimanantes de los instrumentos internacionales, en particular las relativas a los derechos humanos, en consulta y cooperación con los pueblos interesados,

Subrayando que corresponde a las Naciones Unidas desempeñar un papel importante y continuo de promoción y protección de los derechos de los pueblos indígenas,

Considerando que la presente Declaración constituye un nuevo paso importante hacia el reconocimiento, la promoción y la protección de los derechos y las libertades de los pueblos indígenas y en el desarrollo de actividades pertinentes del sistema de las Naciones Unidas en esta esfera,

gainontzeko konponketa aberasgarriak eta horiek adierazten dituzten harremanak direla herri indigenen eta estatuen arteko elkartasuna indartzeko oinarria,

Aitortuz Nazio Batuen Gutunak, Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunak eta Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak, bai eta Vienako Adierazpen eta Egintza Programak, herriek determinazio askerako duten eskubidearen oinarritzko garrantzia baieztatzen dutela, eskubide horren ondorioz herri horiek askatasun osoz erabakitzen baitute euren egoera politikoa eta askatasunez ere bilatzen baitute ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapena, Kontuan izanik Adierazpen honen edukia ezin izango dela, inola ere, erabili herriei determinazio askerako eskubidea ukatzeko, halakoa nazioarteko eskubidearen arabera egikaritzen baita,

Sinetsita herri indigenen eskubideak Adierazpen honetan onesteak estatuen eta herri indigenen arteko harreman orekatuak eta lankidetzaren harremanak sustatuko dituela, besteak beste, justizia, demokrazia, giza eskubideen errespetua, bereizkeriarik eza eta on ustearen printzipioan oinarritzen direnak,

Bultzatuz estatuek errespetu eta bete ditzaten modu eraginkorrean herri indigenenarekiko betebeharrak, nazioarteko instrumentuetatik eratorriak, batik bat, giza eskubideei buruzkoak, herri interesdunei kontsulta eginez eta horien lankidetzarekin,

Azpimarratuz Nazio Batuei dagokiela zeregin nagusia eta etengabea, herri indigenen eskubideak sustatzeko eta babesteko,

Uste izanik Adierazpen hau aurrerapauso handia dela herri indigenen eskubideak eta askatasunak aitortu, sustatu eta babesteko eta esparru honetan, Nazio Batuen sistemaren kasuan kasuko jarduerak garatzeko,

Reconociendo y reafirmando que las personas indígenas tienen derecho sin discriminación a todos los derechos humanos reconocidos en el derecho internacional, y que los pueblos indígenas poseen derechos colectivos que son indispensables para su existencia, bienestar y desarrollo integral como pueblos,

Reconociendo también que la situación de los pueblos indígenas varía según las regiones y los países y que se debe tener en cuenta la significación de las particularidades nacionales y regionales y de las diversas tradiciones históricas y culturales,

Proclama solemnemente la Declaración de las Naciones Unidas sobre los derechos de los pueblos indígenas, cuyo texto figura a continuación, como ideal común que debe perseguirse en un espíritu de solidaridad y respeto mutuo:

Artículo 1

Los indígenas tienen derecho, como pueblos o como personas, al disfrute pleno de todos los derechos humanos y las libertades fundamentales reconocidos por la Carta de las Naciones Unidas, la Declaración Universal de Derechos Humanos (3) y la normativa internacional de los derechos humanos.

Artículo 2

Los pueblos y las personas indígenas son libres e iguales a todos los demás pueblos y personas y tienen derecho a no ser objeto de ninguna discriminación en el ejercicio de sus derechos que esté fundada, en particular, en su origen o identidad indígena.

Artículo 3

Los pueblos indígenas tienen derecho a la libre determinación. En virtud de ese derecho determinan libremente su condición política y persiguen libremente su desarrollo económico, social y cultural.

Artículo 4

Los pueblos indígenas, en ejercicio de su derecho de libre determinación, tienen derecho a la autonomía o el autogobierno

Aitortuz eta berretsiz indigenek nazioarteko zuzenbidean aitortutako giza eskubide guztiak badituztela, inolako bereizkeriarik gabe, eta herri indigenek eskubide kolektiboak badituztela, nahitaezkoak direnak, herri bezala bizitzeko eta ongizate eta garapen osoa izateko,

Aitortuz herri indigenen egoera aldatu egiten dela erregio batetik edota herri batetik bestera eta kontuan hartu behar dela zein esanguratsu diren nazio eta erregioen berezitasunak eta tradizio historiko edo kultural desberdinak,

Ospe handiz aldarrikatzen du herri indigenei buruzko Nazio Batuen Adierazpena, asmo erkide gisa lortu behar dena, elkartasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta; Adierazpenaren testua hurrengo da:

1. artikulua

Indigenek eskubidea dute, herri nahiz norbanako gisa, giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak oso-osorik gozatzeko, hain zuzen ere, Nazio Batuen Gutunak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak eta giza eskubideen nazioarteko arauak aitortzen dituztenak, .

2. artikulua

Herri eta norbanako indigenak askeak eta berdinak dira gainontzeko herri eta pertsoneri begira eta euren eskubideak egikaritzeko orduan, eskubidea dute inolako bereizkeriaren xede ez izateko, batik bat, bereizkeria hori oinarritzen bada indigenen jatorrian edo nortasunean.

3. artikulua

Herri indigenek determinazio askerako eskubidea dute. Eskubide horren ondorioz askatasun osoz erabakitzen dute euren egoera politikoa eta askatasun osoz bilatu ahal dute euren ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapena.

4. artikulua

Herri indigenek, determinazio askerako eskubidea egikaritzeko, eskubidea dute autonomia edo autogobernua izateko,

en las cuestiones relacionadas con sus asuntos internos y locales, así como a disponer de los medios para financiar sus funciones autónomas.

Artículo 5

Los pueblos indígenas tienen derecho a conservar y reforzar sus propias instituciones políticas, jurídicas, económicas, sociales y culturales, manteniendo a la vez su derecho a participar plenamente, si lo desean, en la vida política, económica, social y cultural del Estado.

Artículo 6

Toda persona indígena tiene derecho a una nacionalidad.

Artículo 7

1. Las personas indígenas tienen derecho a la vida, la integridad física y mental, la libertad y la seguridad de la persona.
2. Los pueblos indígenas tienen el derecho colectivo de vivir en libertad, paz y seguridad como pueblos distintos y no serán sometidos a ningún acto de genocidio ni a ningún otro acto de violencia, incluido el traslado forzado de niños del grupo a otro grupo.

Artículo 8

1. Los pueblos y las personas indígenas tienen derecho a no sufrir la asimilación forzada o la destrucción de su cultura.
2. Los Estados establecerán mecanismos eficaces para la prevención y el resarcimiento de:
 - a) Todo acto que tenga por objeto o consecuencia privar a los pueblos y las personas indígenas de su integridad como pueblos distintos o de sus valores culturales o su identidad étnica;
 - b) Todo acto que tenga por objeto o consecuencia enajenarles sus tierras, territorios o recursos;
 - c) Toda forma de traslado forzado de población que tenga por objeto o consecuencia la violación o el menoscabo de cualquiera de sus derechos;
 - d) Toda forma de asimilación o integración forzadas;

barruko edo tokiko gaiekin zer ikusia duten kontuetan, bai eta eginkizun autonomiko horiek finantzatzeko baliabideak edukitzeko ere.

5. artikulua

Herri indigenek eskubidea dute, berez dituzten erakunde politiko, juridiko, ekonomiko, sozial eta kulturei eusteko eta horiek indartzeko, eta, era berean, estatuaren bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturean bete-betean parte hartzeko eskubideari eusteko, hala nahi badute.

6. artikulua

Indigena orok du eskubidea naziotasun bat izateko.

7. artikulua

1. Indigena orok du bizitza, osotasun fisiko eta mentala, askatasuna eta segurtasuna izateko eskubidea.
2. Herri indigenek eskubide kolektiboa dute aske, bakean eta segurtasunean bizitzeko herri desberdin gisa, eta ezin izango dute pairatu inolako genozidio- edota bestelako indarkeria-egintzarik, barne hartuta haurrak behartuta eramatea talde batetik bestera.

8. artikulua

1. Herri eta norbanako indigenek eskubidea dute nahitaezko asimilaziorik ez pairatzeko eta euren kultura suntsitua ez izateko.
2. Estatuek mekanismo eraginkorrak ezarriko dituzte jarraikoak prebenitu eta horien ordaina jaso dadin:
 - a) Egintza oro, horren xede edo ondorioa bada herri desberdin gisa duten osotasuna, balore kulturalak edota etnia-nortasuna ukatzea;
 - b) Egintza oro, horren xede edo ondorioa bada haiei lurak, lurraldeak eta baliabideak kentzea;
 - c) Biztanleria behartuta lekualdatzeko forma oro, horren xede edo ondorioa bada haien eskubideetatik edozein urratu edo kaltetzea;
 - d) Nahitaezko asimilazio- edo gizarteratze-forma oro;

e) Toda forma de propaganda que tenga como fin promover o incitar a la discriminación racial o étnica dirigida contra ellos.

Artículo 9

Los pueblos y las personas indígenas tienen derecho a pertenecer a una comunidad o nación indígena, de conformidad con las tradiciones y costumbres de la comunidad o nación de que se trate. No puede resultar ninguna discriminación de ningún tipo del ejercicio de ese derecho.

Artículo 10

Los pueblos indígenas no serán desplazados por la fuerza de sus tierras o territorios. No se procederá a ningún traslado sin el consentimiento libre, previo e informado de los pueblos indígenas interesados, ni sin un acuerdo previo sobre una indemnización justa y equitativa y, siempre que sea posible, la opción del regreso.

Artículo 11

1. Los pueblos indígenas tienen derecho a practicar y revitalizar sus tradiciones y costumbres culturales. Ello incluye el derecho a mantener, proteger y desarrollar las manifestaciones pasadas, presentes y futuras de sus culturas, como lugares arqueológicos e históricos, utensilios, diseños, ceremonias, tecnologías, artes visuales e interpretativas y literaturas.

2. Los Estados proporcionarán reparación por medio de mecanismos eficaces, que podrán incluir la restitución, establecidos conjuntamente con los pueblos indígenas, respecto de los bienes culturales, intelectuales, religiosos y espirituales de que hayan sido privados sin su consentimiento libre, previo e informado o en violación de sus leyes, tradiciones y costumbres.

Artículo 12

1. Los pueblos indígenas tienen derecho a manifestar, practicar, desarrollar y enseñar sus tradiciones, costumbres y ceremonias espirituales y religiosas; a mantener y proteger sus lugares religiosos y culturales y a acceder a ellos privadamente; a utilizar

e) Propaganda-forma oro, horren xedea bada euren aurka bideratutako arraza- edo etnia-bereizkeria sustatzea eta bultzatzea.

9. artikulua

Herri eta norbanako indigenek eskubidea dute erkidego edota nazio indigena baten partaide izateko, erkidego edo nazio hori, zein izan eta, horien tradizio eta ohiturekin bat etorritik. Eskubide hori egikaritzeak ezin du inolako bereizkeriarik sortu.

10. artikulua

Herri indigenak ezin izango dira lekualdatu euren lur edo lurraldeetatik, indarkeria erabilita. Ezin izango da inolako lekualdaketarik egin herri indigena interesdunen aurretiazko adostasun aske eta jakitun izan gabe, ezta kalte-ordain zuzen eta ekitatearen araberakoa aurretiaz adostu gabe eta, ahal den guztian, lehengo lekura itzultzeko aukera adostu gabe.

11. artikulua

1. Herri indigenek eskubidea dute euren tradizioak eta kultura -ohiturak praktikatu eta indartzeko. Horrek barneratzen ditu kulturen iraganeko, gaurko eta geroko adierazpenei eusteko eta halakoak babestu eta garatzeko eskubidea, hala nola, toki arkeologikoak eta historikoak, objektuak, diseinuak, zeremoniak, teknologiak, ikus- eta interpretazio-arteak eta literaturak.

2. Estatuek ordaina eman beharko diete herri indigenei, horiekin batera ezarritako mekanismo eraginkorren bitartez, itzulketa ere barne, aurretiazko adostasun aske eta jakitun izan gabe edota euren legeak, tradizioak eta ohiturak urratuz kendu dizkieten ondare kultural, intelektual, erlijioso eta espiritualei dagokienez.

12. artikulua

1. Herri indigenek eskubidea dute euren tradizio, ohitura eta zeremonia espiritual eta erlijiosoak adierazi, praktikatu, garatu eta erakusteko; erlijio- eta kultu-tokiak gorde eta babesteko eta halakoak eskura izateko modu pribatuan; kultu-objektuak

y vigilar sus objetos de culto, y a obtener la repatriación de sus restos humanos.

2. Los Estados procurarán facilitar el acceso y/o la repatriación de objetos de culto y de restos humanos que posean mediante mecanismos justos, transparentes y eficaces establecidos conjuntamente con los pueblos indígenas interesados.

Artículo 13

1. Los pueblos indígenas tienen derecho a revitalizar, utilizar, fomentar y transmitir a las generaciones futuras sus historias, idiomas, tradiciones orales, filosofías, sistemas de escritura y literaturas, y a atribuir nombres a sus comunidades, lugares y personas y mantenerlos.

2. Los Estados adoptarán medidas eficaces para garantizar la protección de ese derecho y también para asegurar que los pueblos indígenas puedan entender y hacerse entender en las actuaciones políticas, jurídicas y administrativas, proporcionando para ello, cuando sea necesario, servicios de interpretación u otros medios adecuados.

Artículo 14

1. Los pueblos indígenas tienen derecho a establecer y controlar sus sistemas e instituciones docentes que impartan educación en sus propios idiomas, en consonancia con sus métodos culturales de enseñanza y aprendizaje.

2. Las personas indígenas, en particular los niños indígenas, tienen derecho a todos los niveles y formas de educación del Estado sin discriminación.

3. Los Estados adoptarán medidas eficaces, junto con los pueblos indígenas, para que las personas indígenas, en particular los niños, incluidos los que viven fuera de sus comunidades, tengan acceso, cuando sea posible, a la educación en su propia cultura y en su propio idioma.

Artículo 15

1. Los pueblos indígenas tienen derecho a que la dignidad y diversidad de sus culturas, tradiciones, historias y aspiraciones queden debidamente reflejadas en la educación pública y los

erabili eta kontrolatzeko eta giza hondarrak aberriratzeko.

2. Estatuak ahaleginduko dira kultu-objektuak eta giza hondarrak eskura jartzen edota aberriratzeko, herri indigena interesdunekin batera ezarritako mekanismo zuzen, garden eta eraginkorrak erabilita.

13. artikulua

1. Herri indigenek eskubidea dute euren historiak, hizkuntzak, ahozko tradizioak, filosofiak, idazkera- eta literatura-sistemak indartu, erabili eta sustatzeko eta geroko belaunaldiei halakoak transmititzeko, eta erkidegoei, tokiei eta pertsoneri izenak jartzeko, bai eta horiek gordetzeko ere.

2. Estatuak neurri eraginkorrak hartuko dituzte eskubide horren babesa ziurtatzeko eta baita herri indigenak ulertu ahal izateko eta ulertarazteko jardura politiko, juridiko eta administratiboetan; horretarako, behar denean, interpretazio-zerbitzuak edo bestelako baliabide egokiak emango dituzte.

14. artikulua

1. Herri indigenek eskubidea dute euren irakaskuntza-sistemak eta -erakundeak ezarri eta kontrolatzeko euren hizkuntzetan irakasteko orduan, euren irakaskuntza eta ikaskuntza kultura-metodoekin bat etorriz.

2. Indigenek, batez ere haurrek, eskubidea dute estatuko hezkuntza-maila eta forma guztiak izateko, bereizkeriarik gabe.

3. Estatuak neurri eraginkorrak hartuko dituzte herri indigenekin batera, pertsona horiek, batez ere haurrek, erkidegoetatik kanpo bizi direnek barne, eskura izan dezaten, ahal delarik, euren kulturaren eta hizkuntzaren bidezko hezkuntza.

15. artikulua

1. Herri indigenek eskubidea dute euren kulturen duintasuna eta aniztasuna, tradizioak, historiak eta asmoak behar bezala islatuak izan daitezen hezkuntzan eta informazio publikoan.

medios de información públicos.

2. Los Estados adoptarán medidas eficaces, en consulta y cooperación con los pueblos indígenas interesados, para combatir los prejuicios y eliminar la discriminación y promover la tolerancia, la comprensión y las buenas relaciones entre los pueblos indígenas y todos los demás sectores de la sociedad.

Artículo 16

1. Los pueblos indígenas tienen derecho a establecer sus propios medios de información en sus propios idiomas y a acceder a todos los demás medios de información no indígenas sin discriminación alguna.

2. Los Estados adoptarán medidas eficaces para asegurar que los medios de información públicos reflejen debidamente la diversidad cultural indígena. Los Estados, sin perjuicio de la obligación de asegurar plenamente la libertad de expresión, deberán alentar a los medios de comunicación privados a reflejar debidamente la diversidad cultural indígena.

Artículo 17

1. Las personas y los pueblos indígenas tienen derecho a disfrutar plenamente de todos los derechos establecidos en el derecho laboral internacional y nacional aplicable.

2. Los Estados, en consulta y cooperación con los pueblos indígenas, tomarán medidas específicas para proteger a los niños indígenas contra la explotación económica y contra todo trabajo que pueda resultar peligroso o interferir en la educación del niño, o que pueda ser perjudicial para la salud o el desarrollo físico, mental, espiritual, moral o social del niño, teniendo en cuenta su especial vulnerabilidad y la importancia de la educación para el pleno ejercicio de sus derechos.

3. Las personas indígenas tienen derecho a no ser sometidas a condiciones discriminatorias de trabajo, entre otras cosas, empleo o salario.

Artículo 18

2. Estatuek neurri eraginkorrak hartuko dituzte, herri indigena interesdunei kontsulta eginez eta euren lankidetzarekin, aurreiritzien aurka egiteko eta bereizkeria ezabatzeko eta tolerantzia eta herri indigenen eta gizartearen gainontzeko sektoreen arteko elkar ulertzea eta harreman onak sustatzeko.

16. artikulua

1. Herri indigenek euren komunikabideak euren hizkuntzetan ezartzeko eskubidea dute eta indigenak ez diren komunikabide guztiak bereizkeriarik gabe eskura izateko eskubidea ere.

2. Estatuek neurri eraginkorrak hartuko dituzte ziurtatzeko komunikabide publikoek behar bezala isla dezaten kultura indigenaren aniztasuna. Estatuek, adierazpen-askatasuna erabat ziurtatzeko betebeharrari kalterik egin gabe, komunikabide pribatuak bultzatu beharko dituzte, horiek behar bezala isla dezaten kultura indigenaren aniztasuna.

17. artikulua

1. Norbanakoek eta herri indigenek eskubidea dute nazioarteko eta aplikagarri den nazioko lan-zuzenbidean ezarritako eskubide guztiak oso-osorik gozatzeko.

2. Estatuek, herri indigenei kontsulta eginez eta haien lankidetzarekin, neurri bereziak hartuko dituzte haur indigenak babesteko, ustiapen ekonomikoaren aurka eta lan ororen aurka, hori arriskutsua denean edo haurren hezkuntzan eragina duenean edota kaltegarria izan daitekeenean haurren osasun edo garapen fisiko, mental, espiritual, moral edo sozialerako, kontuan hartuta haurren ahultasun berezia eta hezkuntzaren garrantzia, euren buruaren jabe egiteko orduan.

3. Pertsona indigenek eskubidea dute lanean bereizkeria-baldintzarik ez nozitzeko, besteak beste, enplegu edo soldatari dagokionean.

18. artikulua

Los pueblos indígenas tienen derecho a participar en la adopción de decisiones en las cuestiones que afecten a sus derechos, por conducto de representantes elegidos por ellos de conformidad con sus propios procedimientos, así como a mantener y desarrollar sus propias instituciones de adopción de decisiones.

Artículo 19

Los Estados celebrarán consultas y cooperarán de buena fe con los pueblos indígenas interesados por medio de sus instituciones representativas antes de adoptar y aplicar medidas legislativas y administrativas que los afecten, para obtener su consentimiento libre, previo e informado.

Artículo 20

1. Los pueblos indígenas tienen derecho a mantener y desarrollar sus sistemas o instituciones políticos, económicos y sociales, a que se les asegure el disfrute de sus propios medios de subsistencia y desarrollo y a dedicarse libremente a todas sus actividades económicas tradicionales y de otro tipo.

2. Los pueblos indígenas desposeídos de sus medios de subsistencia y desarrollo tienen derecho a una reparación justa y equitativa.

Artículo 21

1. Los pueblos indígenas tienen derecho, sin discriminación alguna, al mejoramiento de sus condiciones económicas y sociales, entre otras esferas, en la educación, el empleo, la capacitación y el readiestramiento profesionales, la vivienda, el saneamiento, la salud y la seguridad social.

2. Los Estados adoptarán medidas eficaces y, cuando proceda, medidas especiales para asegurar el mejoramiento continuo de sus condiciones económicas y sociales. Se prestará particular atención a los derechos y necesidades especiales de los ancianos, las mujeres, los jóvenes, los niños y las personas con discapacidades indígenas.

Artículo 22

1. Se prestará particular atención a los

